Osakidetza

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SALUD

Lankide prestu hori.

Atsegin handiz aurkezten dizut Osakidetzaren "Herritarren osasunean ahalduntzeko estrategia bateranzko bidea" izeneko dokumentua. Denboran zehar haziko den ekimena izan nahi du, barne hartuz hainbat eragilek garatutako eta osasunean ahalduntzearekin konprometitutako eremutan egindako ekintzak eta programak.

Estrategia hau Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzaren lan-ildo bat da, eta bat dator 2023-2030 aldirako Osasun Planarekin nahiz 2023-2025 aldirako Osakidetzaren Plan Estrategikoarekin. Nahiz eta gure erakundean osasunaren arloan ahalduntzean lan egiten duten pertsona asko egon, ez zegoen horiek hartzen zituen esparrurik.

Bere leloa "*zaintzan parte hartuz*" da, eta bere norabidearen eta helburuen funtsa jasotzen ditu: osasunaren zaintza profesionalen eta herritarren parte-hartzetik eta lankidetzatik hobetzea, hain zuzen.

Hala, dokumentu honek bi ildo korporatibo ditu: Osasun Eskola eta Paziente Bizia-Paciente Activo programa. Bertan, 2024-2026 aldian egin beharreko ekintzak planteatzen dira, Osakidetzan eta komunitatean duten irismena areagotzeko.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet herritarren osasunean ahalduntzea hobetzeko jardueretan parte hartu dutenei, bai eta estrategia hau eraikitzen parte hartu duten guztiei ere, pertsonek egindako eta pertsonentzako pentsatutako arreta ahalbidetu baitute.

Estimado/a compañero/a:

Tengo el placer de presentarte el documento denominado "Un camino hacia una estrategia de empoderamiento en salud de la ciudadanía" de Osakidetza. Pretende ser una iniciativa que crezca en el tiempo, que llegue a albergar acciones y programas desarrollados por múltiples agentes y en diversos ámbitos comprometidos con el empoderamiento en salud.

Esta estrategia es una línea de trabajo de la Subdirección para la Coordinación de la Atención Primaria y se encuentra en concordancia tanto con el Plan de Salud 2023-2030 como con el Plan Estratégico de Osakidetza 2023-2025. Aunque en nuestra organización existen muchas personas que trabajan en empoderamiento en salud, no existía un marco que las albergara.

Su lema *"participando en el cuidado"* recoge la esencia de su orientación y sus objetivos, que buscan mejorar el cuidado de la salud desde la participación y la colaboración entre profesionales y ciudadanía.

Así, este documento presenta dos líneas corporativas: Osasun Eskola y el Programa Paziente Bizia-Paciente Activo. En él se plantean las acciones a desarrollar durante el periodo 2024-2026, con el fin de aumentar su alcance en Osakidetza y en la comunidad.

Por último, reservo estas líneas para agradecer a quienes se han implicado en actividades para mejorar el empoderamiento en salud de la ciudadanía y a todas aquéllas que han participado en la construcción de esta estrategia, haciendo posible una atención por y para las personas.

Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL

Iz. /Fdo.: **María Rosa Pérez Esquerdo**
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA